

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak gizarteratzeko edo laneratzeko errentaren hartzaileen soldata-kostuak finantzatuko ditu

Torres kontseilariak hasiera batean milioi bat eurokoa den laguntza berri hauek aurkeztu ditu, eta kopuru hori handitu egingo da eskaeraren arabera

Martes, 24 de abril de 2012

Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria kontseilari Elena Torres Mirandak Nafarroako Gobernuaren laguntza berriak aurkeztu ditu gaur goizean, prentsaurrekoan. Haiek, gizarteratzeko errenta jasotzen duten pertsonak edo gizarteratzeko nahiz laneratzeko eta enplegu-maila hobetzeko laguntza jasotzen duten pertsonak kontratatzen laguntzeko dira.



Ettxerik gabeko pertsona.

Horretarako, Nafarroako Gobernuak hasiera batean milioi bat euro jarriko du, nahiz eta kopuru hori automatikoki handituko den eskaeraren arabera. Diru horrekin enpresa, erakunde pribatu eta tokiko erakundeei laguntza sozial horiek jasotzen dituztenak kontratatzeko soldata-kostuak finantzatuko dira. Gizarteratzeko eta laneratzeko zentroak kanpoan geratzen dira, Foru Komunitateko Administrazioak beste bide batzetatik laguntzen baitie.

Torres kontseilariak gogoratu du Nafarroako Gobernuaren kezka nagusia enplegua dela, eta adierazi du neurri berri honek helburu bikoitza duela. Alde batetik, diru-laguntzen programa horien bidez arreta emandako pertsonak laneratzeko laguntzen da eta, bestetik, bazterketa-egoerak prebenitzen dira.

Halaber, Gizarte Politikako kontseilariak adierazi du, gizarte-bazterketako kasu larriak alde batera utzita, "persona horiek behar bezala prestatuta daudela enplegu bat izateko eta, horregatik, lan-merkatura itzul daitezela lagundu behar diegu".

Diru-laguntza horiek Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilariaren foru-agindu batek arautzen ditu, eta datozen egunotan argitaratuko da Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Soldata garbia ordaintzeko diru-laguntza

Kontratatutako pertsonen soldata garbia ordaintzeko erabiliko den diru-laguntza 3.848 eurokoa izango da, eta kontratua gutxienez sei hilabetekoa. Hau da, hilean 641 euro, gizarteratzeko errentaren eta gizarteratzeko nahiz laneratzeko eta enplegu-maila hobetzeko laguntzaren gutxienerako kopurua.

Gainera, kontratazioa horiek lan-taldearen benetako igoera garbia ekarri behar dute eta, inolaz ere, pertsona berri horiek erakunde kontratatzailearekin kontratua duen langileen ordean jarri.

Lanaldia, gutxienez, laguntza gisa jasotako kopuruari proportzionalki dagokion ordu-kopurukoa izango da, aplikatuko den hitzarmen kolektiboan ezarritako maila profesional eta soldaten arabera.

Jarduera garatzeko lor daitezkeen beste batzuekin bateragarriak diren laguntzak Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuan izapidetuko dira hilabeteko epean kontratua sinatu eta hurrengo egunetik aurrera. Bestalde, ebazpena gehienez ere 45 egunen buruan eman eta jakinaraziko da. Eskatzeko formularioak www.navarra.es webgunean eskuragarri izango dira.